



VICTORIA EUGENIA
Aritzakia

Garikoitz Mendizabal eta German Ormazabal

METAMORFOSIA

Txistu eta piano errezitaldia

Club

Urriak 01

2020



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



donostia**kultura**
1990-2020

METAMORFOSIA

Metamorfosia: jaiotza unetik helduarora ematen den aldaketa. Animalia batzuren garapenean, enbrioi eta heldu-faseen bitartean gertatzen diren aldaketa anatomikoen multzoa.

Animalia askok ez dute jaioberritan helduen itxurarik. Haien enbriotik larba bat eratzen da, eta hau, zenbait fase igaro ondoren, animalia heldu bilakatzen. Metamorfosia oso hedatua dago animalien erreinuan, ornogabeen artean batez ere. Multzo horretakoak dira intsektuak, moluskoak, krustazeoak... Kordatuaren artean geneuzkake anfibioak eta arrain hezurdun zenbait. Esaterako, aingirak.

Ez da erabateko metamorfosira iritsiko pianoak eta txistuak ezagutu dutena. Baina bilakera handia izan dute, bakoitzak bere

aldetik. Kordatua da pianoa. Teklei loturiko sokek ematen diote noiz "piano" eta noiz "forte" jo ahal izateko aukera. Tekla horien pisuaren handitzeak teknikoki aldaketa ekarri zuen musika-tresnarenzat. Txistuaren ezaugarri teknikoekin gauza bertsua gertatu da... Bilakera horiek ez dira kasualitatez gertatzen ordea. Areto txikietatik areto handiagoetarako jauziak badu zerikusia pianoaren bilakeran; txistuarenean kalerako eta bandarako musika izatetik beste tresna batzurekin jotzeko prestatu nahiak ekarri du bilakaera.

Tradizioa eta sormenaren arteko orekan bizi gara. Bati uko egin gabe besteari ateak zabaltzea da gure asmoa. Eta bien arteko alanbre fin horretatik erori gabe ibiltzen asmatzea, gure helburua.

Andoni Egaña

METAMORFOSIA



Emanaldi honek txistua eta pianoak izan duten bilakaeraren isla izan nahi du nolabait. Bi musika tresnen arteko metamorfosia. Txistuaren historia luze eta ederrean iristen da une bat tradizioa, dantza eta folklorreak alde batera utzi gabe ganbera musika egiteko asmoa. Eta zorionez txistulariak beti izan ditu ondoan eta gertu musika egileak. Eta ez edozein!

Organistak, musika bandetako zuzendariak, konpositoreak... punta-puntako musikariek idatzi izan dute txisturako: Miguel Glz. Bastida, Jesus Guridi, Pablo Sorozabal, Luis Urteaga, Luis Aranburu, Tomas Garbizu, Eduardo Gorosari, Jose eta Gabriel Olaizola, Isidro eta Jose Ignazio Ansorena, Ramon Lazkano etab.

Ganbera musika egiteko orduan bidaide izan zuen lehen instrumentua ziurrenik pianoa izan zen. Geroago ohitu gara harizko instrumentuekin, akordeoiarekin, organoarekin etab. entzuten, baita orkestraz lagunduta ere.

Horregatik, txistu eta pianorako idatzi izan diren hainbat obra eskaintzen ditugu, bertako musikarientz eta kanpokoentz. Horren adibide dira Garikoitz Mendizabali eskaini zaizkion Najj Hakim-en *Concierto para txistu y orquesta*, David Rivasen *Recuerdos del ayer* eta Eduardo Morenoren *Rapsodia para txistu y piano*.

GARIKOITZ MENDIZABAL
GERMAN ORMAZABAL

METAMORFOSIA

TXISTU & PIANO ERREZITALA

I. Euskal suitea II

Tomas Garbizu

- Eibarko kontrapasa
- Ixil ixilik
- Baratzeko pikuak

**II. Rapsodia
para txistu y piano**

Eduardo Moreno

III. Concierto para txistu

Naji Hakim

- I - Moderato
- II - Mesto
- III – Presto

IV. Recuerdos del ayer

David Rivas

V. Basque Anthology

Naji Hakim

- Kontradantza
- Kurruxko
- Mendiko Soinuak

VI. Hiru ataletako alborada

Eduardo Gorosarri

Ramon Lazkano

- Kontrapasa
- Zortzikoa
- Idiarena

Musikariak:

Garikoitz Mendizabal txistuak

German Ormazabal pianoa



VICTORIA EUGENIA

Antzokia